Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

# 199 EREDUA AURKEZTEKO DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK

## ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota desberdin sartuko dira. Horiek lehen posizioagatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

**1. mota: Aitortzailearen erregistroa:** identifikazio datuak eta aitorpenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, aurrerago atal hauetan eta foru agindu honetako eranskinean azaltzen dena.

**2. mota: Aitortuen erregistroa**. 2. motako erregistroaren diseinua, atal hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren araberakoa izango da. 1. motarako, erregistro bakarra egongo da, eta 2. motarako, berriz, aitorpenean sartzen diren jasotzaileak adina erregistro

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldera lerrokatuko dira oro har, eta eskuinaldetik zuriunez beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkerraldetik zeroz beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta trinkotu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu guztiek izango dute edukia. edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfabetiko/alfanumerikoak zuriunez joango dira

Apirilaren 22ko 377/2002 Foru Aginduaren bidez eguneratuta (GAO 03/05/2002)

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

# 199 EREDUA

## A 1. motako erregistroa:

## AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|---|---|---|
| 1 | Numerikoa | **ERREGISTRO MOTA**<br>«1» zenbaki konstantea. |
| 2-4 | Numerikoa | **AITORPEN EREDUA**<br>«199» konstantea. |
| 5-8 | Numerikoa | **EKITALDIA**<br>Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira. |
| 9-17 | Alfanumerikoa | **AITORTZAILEAREN IFZ**<br>Aitortzailearen IFZ jarriko da.<br>Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira |
| 18-57 | Alfanumerikoa | **AITORTZAILEAREN SOZIETATE IZENA**<br>Sozietate izen edo izendapen osoa jarriko da, anagramarik gabe<br>Inoiz ere eremu horretan ezin izango da jarri merkataritza izenik. |
| 58 | Alfabetikoa | **EUSKARRI MOTA**<br>Gako hauetako bat jarriko da:<br>«C»: Informazioa kartutxo magnetikoan aurkezten bada<br>«D»: Informazioa disketean aurkezten bada.<br>«T»: Transmisio telematikoa bada. |
| 59-107 | Alfanumerikoa | **HARREMANETARAKO PERTSONA**<br>Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da<br>59-67 TELEFONOA: 9 posizioko eremu numerikoa.<br>68-107 DEITURAK ETA IZENA: jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. |
| 108-120 | Numerikoa | **AITORPEN FROGAGIRIAREN ZENBAKIA** |

| | | |
|---|---|---|
| | | Aitorpen frogagiriaren zenbakia jarri behar da.<br><br>Eremuak 13 posizioko eduki numerikoa du. |
| **121-122** | **Alfabetikoa** | **AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA**<br>Aurkezten dena bigarren edo ondorengo aitorpen bat denean, honako eremu hauetako bat beteko da derrigorrez:<br><br>121 AITORPEN OSAGARRIA:<br>"C" jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean aipatu gabe utzi ziren ordainketak sartzea bada<br><br>122 ORDEZKO AITORPENA:<br><br>122: Ordezko aitorpena: «S» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia ekitaldi eta zergaldi berberari dagokion aurreko aitorpen bat baliogabetu eta bere osoan ordezkatzea bada. Ordezko aitorpenak aurreko aitorpen bat bakarrik baliogabetu dezake. |
| **123-135** | **Numerikoa** | **AURREKO AITORPENAREM FROGAGIRI ZENBAKIA**<br>«Ordezko aitorpena» eremuan «S» jarri bada, aitorpen ordezkatuaren<br><br>Eremuak 13 posizioko eduki numerikoa du. Beste edozein kasutan, zeroz bete behar da. |
| **136-144** | **Numerikoa** | **AITORTUEN KOPURU OSOA**<br>Aitortzaile honentzat euskarrian aitortuen zenbat erregistro sartu diren adieraziko da. Aitortu bera erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik ageri den adina aldiz zenbatuko da (2. motako erregistroen kopurua). |
| **145-162** | **Alfanumerikoa** | **ERAGIKETEN ZENBATEKO OSOA**<br><br>18 posizioko eremu numerikoa.<br><br>«Eragiketaren zenbatekoa» eremuetan (aitortuaren erregistroetako 169tik 183ra bitarteko posizioak) adierazitako zenbatekoen batura jarri behar da, zeinurik eta koma dezimalik gabe.<br><br>Zenbatekoak eurotan jarri behar dira.<br><br>Eremu hau bitan banatuta dago:<br><br>145-160: Eragiketen zenbateko osoaren zati osoa; edukirik ez badute, zeroz beteko da.<br><br>161-162: Eragiketen zenbateko osoaren zati dezimala; edukirik ez badute, zeroz beteko da. |
| **163-250** | | **ZURIGUNEAK** |

* Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira
* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldetik zeroz beteko dira.

* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriuneak utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

## 199 EREDUA

## B.- 2. Motako erregistroa

## AITORTUAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|---|---|---|
| 1 | Numerikoa | **ERREGISTRO MOTA**<br>«2» konstantea. |
| 2-4 | Numerikoa | **AITORPEN EREDUA**<br>"199" konstantea. |
| 5-8 | Numerikoa | **EKITALDIA**<br>1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da |
| 9-17 | Alfanumerikoa | **AITORTZAILEAREN IFZ**<br>1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da. |
| 18-26 | Alfanumerikoa | **AITORTUAREN IFZ**<br>Pertsona fisikoa bada, aitortuaren IFZ jarri behar da, IFZren osaera eta erabilerari buruzko ekainaren 16ko 58/1998 Foru Dekretuak jasotako arauei jarraituaz.<br><br>Errentak egozten dituen pertsona juridikoa edo entitatea izanez gero (ondasun komunitatea, sozietate zibila, banatu gabeko herentzia, etab.), hari dagokion identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da.<br><br>IFZ duten pertsona juridikoak, entitateak edo adingabeak edo ezgaiak badira, eremu hau betetzeaz gain, «Ordezkariaren IFZ» eremua ere bete behar da, eta haien legezko ordezkariaren IFZ jarri behar da (ahalordeaduna, baimendua, aita, ama edo tutorea)<br><br>Eremu hau eskuinera lerrokatu behar da; kontrol karakterea azken posizioa izango da, eta ezkerreko posizioak zeroz bete behar dira.<br><br>IFZrik ez duten adingabeko edo ahamen gabeko aitortuak badira, eremu hau ez da bete behar, baizik eta «Legezko ordezkariaren IFZ» eremua, eta legezko ordezkariaren IFZ jarri behar da (aita, ama edo tutorea).<br><br>Aitortuak Espainiako ez-egoiliar direnean, eremu hau bete gabe egon daiteke (tarteak), baldin eta «Atzerriko kodea» eremuan (116-130 posizioak) pasaporte zenbakia edo sorburuko herriko nortasun zenbaki baliagarria jartzen bada. |

| | | |
|---|---|---|
| **27-35** | **Alfanumerikoa** | **ORDEZKARIAREN IFZ**<br>Txekea aitortuaren ordezkariaren bitartez kobratzen bada, ahalordedunaren edo pertsona baimenduaren IFZ jarri behar da eremu honetan.<br><br>Bestela, eremu honen edukia tartez bete behar da.<br><br>Eremu hau eskuinera lerrokatu behar da; kontrol karakterea azken posizioa izango da, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.<br><br>Adibidez, aitortua adingabea bada edo ezgaia bada, legezko ordezkariaren IFZ jarri behar da (aita, ama edo tutorea) eremu honetan eta, aitortua entitatea bada, ahalordedunaren edo pertsona baimenduaren IFZ. |
| **36-75** | **Alfanumerikoa** | **AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA, SOZIETATEAREN IZENDA EDO**<br><br>Eremu honetan hartzaileen edo, bidezkoa bada, aitortzen ari diren txekeak kobratzeko aurkeztu dituzten pertsonen deiturak eta izena edo, bestela, sozietatearen izena edo izendapena jarri behar dira.<br><br>a) Pertsona fisikoak badira, lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat eta izen osoa jarri behar dira, ordena horretan nahitaez. Aitortua adingabea bada, adingabearen deiturak eta izena jarriko dira eremu honetan.<br><br>Errentak egozten dituzten entitateak badira, entitatearen izena edo izendapen osoa jarri behar da anagramarik gabe. |
| **76-115** | **Alfanumerikoa** | **ORDEZKARIAREN DEITURAK ETA IZENA**<br>Txekea aitortuaren ordezkariaren bidez kobratzen bada, eremu hau betetzeaz gain, «Aitortuaren deiturak eta izena, sozietate izena edo izendapena» eremua ere bete beharko da (36-75 posizioak), eta hartzailearen datu guztiak jarri beharko dira. |
| **116-130** | **Alfanumerikoa** | **ATZERRIKO KODEA**<br>Aitortua Espainiako ez-egoiliarra bada eta IFZrik ez badu, zergaduna bere herrian edo bizi den lurraldean identifikatzen dituen digitu numeriko eta alfabetikoak jarri behar dira. |
| **131-132** | **Numerikoa** | **PROBINTZIA KODEA**<br><br>Oro har, jasotzailea bizi den probintziako edo, hala bada, hiri autonomoko bi digitu numerikoak jarriko dira, zerrenda honen arabera:<br><br>ARABA .......................... 01 LEON ............................ 24<br><br>ALBACETE ..................... 02 LLEIDA .......................... 25<br><br>ALACANT ...................... 03 LUGO ............................ 27<br><br>ALMERIA ....................... 04 MADRIL ........................ 28<br><br>ASTURIAS ..................... 33 MALAGA ....................... 29<br><br>AVILA ............................ 05 MELILLA ....................... 52<br><br>BADAJOZ ....................... 06 MURTZIA ...................... 30 |

| | |
|---|---|
| BARTZELONA .............. 08 | NAFARROA ................. 31 |
| BURGOS ....................... 09 | OURENSE .................... 32 |
| CACERES ..................... 10 | PALENTZIA .................. 34 |
| CADIZ ........................... 11 | PALMAS, LAS ............. 35 |
| KANTABRIA ................. 39 | PONTEVEDRA ............. 36 |
| CASTELLO .................... 12 | ERRIOXA ..................... 26 |
| CEUTA .......................... 51 | SALAMANCA ................ 37 |
| CIUDAD REAL .............. 13 | S.C.TENERIFE .............. 38 |
| KORDOBA .................... 14 | SEGOVIA ..................... 40 |
| CORUÑA, A .................. 15 | SEVILLA ....................... 41 |
| CUENCA ....................... 16 | SORIA .......................... 42 |
| GIRONA ....................... 17 | TARRAGONA ............... 43 |
| GRANADA .................... 18 | TERUEL ........................ 44 |
| GUADALAJARA ............ 19 | TOLEDO ....................... 45 |
| GIPUZKOA .................... 20 | VALENTZIA .................. 46 |
| HUELVA ........................ 21 | VALLADOLID ................ 47 |
| HUESCA ....................... 22 | BIZKAIA ....................... 48 |
| BALEARRAK ................ 07 | ZAMORA ..................... 49 |
| JAEN ............................. 23 | ZARAGOZA .................. 50 |

**133-135** **Numerikoa** **HERRI KODEA**

Espainiako lurraldeko ez-egoiliarrak direnean, XXX jarriko da, XXX aitortua bizi den herriaren kodea izango delarik. Horretarako, abenduaren 30ko 1.074/1999 Foru Aginduak III. eranskinean jasotako herrien gakoei jarraituko zaie.

**136-138** **Numerikoa** **AITORTUEN KOPURUA**

Aitortzen den eragiketan zenbat subjektuk parte hartu duten adieraziko da.

Erne: Hemen aitortzen den txeke beraren hartzaile bakoitzeko erregistro bat jarri beharko da

**139-146** **Numerikoa** **ERAGIKETAREN DATA**

Eragiketaren data jarri behar da honako hauek adierazita: Urtearen lau digituak, hilaren biak (01etik 12ra) eta egunaren biak (01etik 31ra). Formatua UUUUHHEE izango da.

| | | |
|---|---|---|
| **147-148** | **Numerikoa** | **ERAGIKETAREN GAKOA**<br>Kode hauetako bat jarri behar da:<br><br>Gakoa Azalpena.<br><br>01: Kreditu entitateak txekea jaulkitzea, salbu kontu bankarioaren kontra jaulkitakoak direnean.<br>02: Kreditu entitate batek jaulkitako txekea ordaintzea, kontu bankario batean abonatzen ez denean.<br>03: Beste pertsona batek 3.005,6 eurotik gora jaulkitako txekeak ordaintzea, kontu bankario batean abonatzen ez direnean. |
| **149-168** | **Alfanumerikoa** | **TXEKE ZENBAKIA**<br>Txekea identifikatzen duen kodea jarriko da. Ezkerraldetik hasiko da betetzen. |
| **169-183** | **Numerikoa** | **ERAGIKETAREN ZENBATEKOA**<br>15 posizioko eremu numerikoa.<br><br>Zein izan den eragiketaren zenbatekoa adierazi behar da, zeinu eta koma dezimalik gabe.<br><br>Zenbatekoak eurotan jarri behar dira.<br><br>Txekeak euroaz bestelako monetan izendatuta daudenean, honela zehaztuko da euroko kontrabalioa, zenbatekoa 3.005,06 eurotik gorakoa ote den jakiteko:<br><br>a) Europako Batasunean euroa hartu duten estatuetakoez bestelako monetak badira: Europako Banku Zentralak argitaratu eta Espainiako Bankuari jakinarazitako euroaren truke ofizialaren arabera.<br><br>b) Europako Batasunean euroa hartu duten estatuetako monetak badira: Euroaren eta moneta horren artean modu ezeztaezinean finkatutako bihurtze tasen arabera<br><br>Eremu hau bitan banatuta dago:<br><br>169-181: Eragiketaren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badute, zeroz beteko da.<br><br>182-183:Eragiketaren zenbatekoaren zati dezimala; edukirik ez badute, zeroz beteko da.<br><br>Era berean, eragiketari lotutako aitortuak asko direnean, bakoitzari egozten zaion zenbatekoa jarri behar da beren partaidetza portzentajearen arabera. |
| **184-187** | **Numerikoa** | **SUKURTSAL KODEA**<br>Eragiketan esku hartzen duen aitortzailearen sukurtsalaren kodea jarri behar da. |
| **188-250** | | **ZURIUNEAK** |

* Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira
* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldetik zeroz beteko dira.

* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriuneak utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.